

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Donostiak zerga politika aldatu du Europar Batasunak jarritako hainbat baldintzari egokitzeko

Udal gobernuak 2025erako zerga arauen proposamena aurkeztu du, eta helburua da hondakinak jasotzeko zerbitzuak defizit ez izatea eta Udalaren gastu korrontearen gehikuntzari aurre egitea

Tokiko Gobernu Batzordeak 2025erako zerga-arau proposamena onartu du. Donostiako alkate Eneko Goiak azaldu du, 2025erako proposamena baldintzatuta dagoela, alde batetik, Udalak hainbat zerbitzu emateagatik izan duen kostuen gehikuntzarengatik, eta bestetik, Europar Batasunak hondakinak jasotzeko zerbitzuak defizitik ezin duela izan jarritako baldintzagatik.

Goiak honakoa azpimarratu du: “Europako zuzentarau batek, hain zuzen ere, Estatuko lege baten bidez bete beharreko zuzentarauak, ezarri du 2025etik aurrera hiri hondakinak jasotzeko zerbitzuaren kostuak ezin duela defizitik izan, eta gainera eskatzen du erabiltzaileok izatea horren kostua ordaintzen dugunak”.

Horiek horrela, honakoa gaineratu du: “Udalerririk aipatutako tasan aldaketa nabarmena egitea ekarri du. Era berean, Udalerririk EUDELen lanean ari gara zuzentarauak berak ezartzen dituen beste hainbat eskaerari erantzuna emateko”.

Donostiako alkateak eta Pertsonen kudeaketa, ekonomia eta aurrekontuen zinegotzi Kerman Orbegozok udal talde guztiei helaraziko zaien Udal gobernuaren zerga-arau proposamena aurkeztu dute gaur goizean, behin Tokiko Gobernu Batzarrak adostuta.

Zergak

Pertsonen kudeaketa, ekonomia eta aurrekontuen zinegotzi Kerman Orbegozok adierazi du, zerbitzuen kostuen gehikuntzaren eta Europar Batasunak ezarritako baldintzen ondorioz, 23 udal zergetatik 11 aldatuko dira. Eta aldaketa horiek Udalarik 8,2 milioi eurotako diru-sarrera gehigarriak ekarriko dizkio, alde batetik, hondakinak jasotzeko zerbitzuaren defizita kentzeko, eta bestetik, Udalaren gastu korrontearen handitzeari aurre egiteko.

Hortaz, Udal gobernuak proposatu du segidako zergak %3,9 igotzea: Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (OHZ), Ekonomia Jardueren gaineko zergaren ezarritako 3., 4., 5. eta 6. mailako kaleen egoera-indizea, eta Hiri Izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren (Gainbalioen zerga delakoa) ezartzen den tipoa.

OHZren kasuan, gainera, zerga arauaren aldaketak hainbat hobekuntza jasoko ditu familia ugariak duten hobarian, alokairu-programei utzitako etxebizitza hutsen hobarian, eta eguzkitik datorren energia elektrikoa edo termikoa aprobetxatzeko sistemak instalatu dituzten higiezinaren hobarian.

Bestalde, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergak eta Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zergak ez dute tipoa aldaketarik izango, baina hainbat artikulutako idazketa moldatuko da, argiago egoteko.

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Horiek horrela, Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zergan egun Elizak dituen salbuespenak kendu egingo dira 2023ko Ministerioaren Aginduari jarraituz, eta eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituzten obren gaineko hobariei buruzko artikulua idazketa hobetuko da.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga aldiz Foru Arauak ezartzen duen prozedura berrira egokituko da, hain zuzen ere, desgaitasun maila aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura berrira, eta balorazio zaharrentzako xedapen iragankorra erantsiko zaio.

Tasak

Hainbat zerbitzu emateagatik ordaintzen diren tasei buruz, udal gobernuaren proposamenak aurreikusten du segidako tasak aldatzea: Hiri Hondakin Solidoak Biltzeko tasa, Ur hornidura eta Estolderi zerbitzuari dagozkion tasak, Udal Garabi tasa, Ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeari dagozkion tasa (TAO) eta Udal zerbitzu eta jarduerari dagozkion tasa.

Alkateak Europar Batasunaren Zuzentarauari buruz esandakoari helduta, hain zuzen ere, hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren defizitari buruz, Pertsonen kudeaketa, ekonomia eta aurrekontuen zinegotziak honakoa gaineratu du: "Egun zerbitzuaren defizita 5,5 milioi eurokoa da eta ekitaldiaren amaieran handiagoa izango da. Europak agintzen digu zerbitzuaren kostua bideratzea pertsona bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruaren arabera. Hori dagoeneko Udalak egiten du ur kontsumoaren kontrolaren bitartez". Hortaz, Kerman Orbegozok esan du, tasa %26,54 handituko dela, eta ondorioz, bi heldu eta bi haur bizi diren etxebizitza baten batez besteko ordainagiria aurten 55,80 handitzea, hau da, urtean 13,95 euro pertsona bakoitzeko.

Ur hornidura eta estolderia tasak %1 eta %2,87 handituko dira, eta ondorioz, batez besteko ordainagiria 1,01 eta 3,79 euro handituko dira. Era berean, nekazaritza-ustiategi txikiek ordaintzen duten tasan aldaketa egingo da, eta jarduera ekonomiko gisa zergapetuta egotetik, 0,65 euroko tarifa aldakorra izatera pasako dira, betiere ustiategi horien tamaina ez bada iristen Nekazaritzako Lan Unitatetzat (NLU) hartzen denera.

Bestalde, Ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeari dagozkion tasa (TAO) %7,8 handituko da eremu gorri eta berezietarako, %3,9 gainerako eremuetarako zein aparkatzeko baimen ezberdinetarako, eta %10 Berioko autokarabanen aparkalekurako.

Udal Garabi tasa ere %3,9 handituko da eta trafikoko Legearen araudira egokituko da.

Azkenik, Udal zerbitzu eta jarduerari dagozkion tasak aldaketa bat izango du larrialdiko etxebizitzetan atalean. Tasa hau Gizarte Ekintza departamentuaren zerbitzuen araudian aurreikusita dago, eta pisu bat egun bakoitzeko ordaintzen den zenbatekoari eragingo dio. Zerbitzuak duen kostuari aurre egiteko tasa 7,5 eurotik 19,91 eurotara handituko da. Aipatu beharra dago, kasu ia gehienetan departamentuak berak kostua bere gain hartzen duela, izan ere, zerbitzuaren erabiltzaileek ez dute baliabide nahikorik ordaintzeko.

Prensa Oharra

Nota de Prensa



Egutegia

Behin Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartuta, udal taldeei aurkeztuko zaie eta taldeek 10 egun izango dituzte zuzenketak edota arau proposamenak egiteko. Jarraian, irailaren lehenengo hamabostaldian jardunaldi irekia egingo da hiritarrei proiektua azaltzeko. Ondoren, iraileko Ogasun batzordean eztabaidatu eta onartuko dira zuzenketak eta arau proposamenak. Eta azkenik, irailaren azkeneko asteko udalbatzarrean proiektuari hasierako onarpena emango zaio, eta beharko balitz, behin betiko onarpena abenduan egingo litzateke.

Donostia 2024ko uztailak 23